



Bilera Lakuan - 2018/10/22

Bileran jorratzen ari garenaren inguruko aurrerapen oharra bidaltzen dugu; interesko beste ezer gertatuz gero bihar jarraituko genuke informatzen.

Donostiako BJB

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak jakinarazten digu Donostian BJB ezarriko dela azaroaren 19an edo 26an; ahaleginduko omen dira 19an izaten.

TITULARRAK AKOPLATZEA. Urriaren 9an argitaratua izan behar bazuten ere bihar egingo dute.

BITARTEKO LANGILEEN LAN-POLTSA EGUNERATZEA. EHAak horretarako tokia duenean argitaratuko dute; gutxi gorabehera azaroaren 4 eta 5aren artean izango dela aurreikusten dute.

BITARTEKO LANGILEEI ESLEITZEA. Oraindik ez dakite noiz izan ote daitekeen. Daukaten asmoa da plaza guztiez gain aurreikusi daitezkeen errefortzuak ere esleitzea; egun dauden 12ak zenbatu dituzte eta Idazkari Koordinatzaileak eskatuko dituen errefortzuak ere errespetatuko dituzte. Ekitaldi horretan jardunean daudenen zerrenda eratu artean Donostian izendatutako guztiek parte hartuko dute.

Lan-poltsa eguneratua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean, honako hauek jakinaraziko dituzte:

- Donostian jardunean dauden bitarteko langileen zerrenda;
- Horiexei eskainiko dizkieten plazen lista.

2017-2018ko LEP

Geroko doitzeak gorabehera, hauexek dira Justizia Administrazioako Zuzendaritzak eskaini asmo dituen plazak datorren oposiziorako:

	BARNE S.	T. ASKEA
KUDEAKETA	13	46
IZAPIDETZA	46	152
LAGUNTZA		63
A. MEDIKUNTZA		3

LEKUALDATZE LEHIAKETAK

Justizia Saila aztertzen ari da hizkuntzagatiko berriazko lanpostuak generiko bihurtzea, lehiaketa bakar batean batzea, alegia; hori bai, batzuek euskara betekizun izango lukete eta bestetuek ez. Batak zein besteak generiko izaerakoak izango lirateke; berriazko plazarak, ordea, hizkuntza ez beste baldintzaren bat bete behar dutenak lirateke.

Behingoz zuzendaritzak LABek egindako eskaera aintzat hartu du; pozten gara, bai horixe!

2018-10-22



LAB-Justizia Araba
junta-lab@justizia.eus
Tfnoa.: 945004919

LAB-Justizia Bizkaia
lab.b@justizia.eus
Tfnoa.: 944016525
Faxa: 944016647

LAB-Justizia Gipuzkoa
lab.gi@justizia.eus
Tfnoa.: 943004361
Faxa: 943004366